

noaua

Elkartasuna Kataluniarekin

**1991ko marka hautsi nahi da
azaroaren 1eko giza-proban**

**Errigorako otarrak eskatzeko
garaia da**



Azaroaren 9an, Mundualdia

**“Herriko komunitate aniztasuna
erdigunean jartzea da festa honen helburua”**



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es

**ERREFUSAREN BILKETAREN
EGUTEGI ZUZENA 2019**

(ZUZENDU NOAUAKO EGUTEGITIK)

URRIAK >>>>>> 6, 20

AZAROAK >>>>>> 3, 17

ABENDUAK >>>> 1, 15, 29



 **pikabea**

**ASEGURU ARTEKARITZA
ETA GESTORIA ZERBITZUA**

Telf: 943 37 11 18 Mugikorra: 672 23 83 01

pikabea@pikabeaaseguruak.com



Uzturre Plaza, 8 Lasarte-Oria J-0078EUS

Albiste iruditan

Sutegi, sagar barietatearen erakusleiho

Sagardo berria ekoizteko urte garai honetan, ba ote dakigu zer sagarrekiko ekoizten den inguruotako edari preziatua? 115 barietateren artean aukeraketa bat egin eta Sutegin ikusgai jarri dituzte igandera arte, kultur etxe-ko erakusleihoan. Ez da asteotarako sagardoaren sustapenerako antolatu den ekintza bakarria honakoa. Asteazken honetan sagardo ozpinaren inguruko saioa egitekoak ziren Aitzaga Elkartearen Jakoba Errekondo paisajistarekin eta Dani Lasa sukaldariarekin. Azaroaren 12an hurrengo hitzordua; euskal sagardoarekin maridaturiko afari gidatua, herrian ditugun elkarte gastronomikoetako batean.



Sagar barietateen aukeraketa bat egin dute eta Sutegin ipini dute ikusgai igandera bitarte.

Laburrean

1969koen jaiotako festa

Larunbatean, urriaren 26an. 12:30ean finkatu dute biltzeko hitzordua Guria tabernan, 13:30ean argazkia aterako dute Artzabalgo plazan eta 14:30ean bazkari-tara joango dira Atxegara.

Asteburu honetan, ordu aldaketa

Neguko ordutegira egokitzeko garaia heldu da. Larunbatetik iganderako gauean ordubete atzeratu beharko ditugu erlojuak. Goizaldeko 3:00etan 2:00ak izango dira.

Azken ostiraleko elkarretaratzea

Euskal presoek eskubideen alde mobilizatzeko urriko azken ostirala hemen da. Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituta, elkarretaratzea hilaren 25ean 20:00etan Mikel Laboa plazan.

noaia

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkartea@noaia.eus ||| www.noaia.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Itxaso Orbegozo.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaia.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaia.eus



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Luis Aranalde

Ibaetako katekisten ihesa

Azer zalaparta atera dugun! Katekesia munduko hautsak harrotu ditugu oraingoan. Gertakizunak kronologikoki kontatu nahi nituzke.

Nahiz eta parroko berria Francisco José Porgueres (alias "Toché") izan, Katekesi arloa gure esku utzi zuen; izan ere, esperentziarik ez du katekesian eta euskara ez du zipitzik hitz egiten, nahiz eta ia hogeitaz urte daramatzen Donostian. Jose Inazio Munillari esan nion Opusekoa bidali nahi bazuen Ibaetara, gutxienez euskara jakin zezala. Ez zidan kasurik egin. Gauzak horrela, maiatzaren erdi aldera bukatu genituen lan guztiak: Jaunartzeak, sendotzak, "merendolak"... Parroko berriaren esanetan dena oso ondo, guztiz kontent gure lanarekin. Mezak ere festa bihurtzen genituen. Ez didazue esango hori miraria ez denik, ezta?

Abuztuaren erdi aldera ez digu ba esaten katekesiko arduradunoi gehiago ez zuela gurekin kontaktzen! Bera eta bere lagun bat arduratzen zirela dotrina emateaz.

Katekesi urtearen amaieran ez nuen izan gurasoei agur esateko aukerarik, ez bainekien aldaketa hori gertatuko zenik. Kartatxo bat idatzi nien esanez eskertzen niela hamabi urtez nigan jarri zuten uste ona edo konfiantza. Aurrerantzean nik jarraituko nuen parrokan (Añorgako parrokoa naiz) ateak irekita egongo zirela nigan etorri nahi izanez gero. Munillari ez zitzaion asko gustatu nire gutuntxoak, baina nik adierazi nion eskubide osoa nuela gurasoei agurra esateko. Elkarriketa horretan esan nion katekesiko gurasoek ez zutela ezer jakin nahi Opusekin (parroko berria erakunde horretakoa baita) eta alde egingo zutela ziur aski parrokiatik. "¿Qué? ¿Habrà una estampida, entonces?". "Bai, oraintxe esan duzu hitz aproposa", erantzun nion. Bai hala gertatu ere. Ia guraso guztiek (%85 nire ikasle izanak Santo Tomás Lizeoan) Añorgara ekarri zituzten beren haurrak; gutxi batzuek Benta Berrira.

Bederatzi katekistek dimititu egin zuten eta orain Añorgan ematen dute dotrina. Dimisioaren zergatia erraz ulertzen da: Katekista horiek ez dute

inongo loturarik Opusekin, beren ideiak eta Parrokoarenak zerikusirik ez dute gai batzuetan. Adibidez: guk aitortza komunitarioak egiten genituen; parroko berriak, aldiz, gurasoak eta haurrak bakarka pasa nahi ditu konfesalekutik... Bakarkako aitortzari buruz Añorgako ama gazte batek esan zidan behin: "aitortza izan da nire bizitzan jasan dudana umilaziorik handiena". Hori bezala beste zenbait arlotan ere ideia oso ezberdinak dituzte, beraz, ezin kolaborazio sano bat antolatu.


Gure parrokan bi elkarte daude Donostian beste parroketan gertatzen denaren antzera: kontzilio aurreko erritoei, tradizioei eta hizkuntza teologikoari jarraitu nahi diotenena eta orain dela hirurogei urte ezagutu genuen eliza estiloa guztiz berritu nahi dutenena. Lehenbizikoak izango litrateke Opusen inguruko ideiak dauzkatenak eta bigarrenak berriz, lehengoari eutsi bai, baina berritzen joan nahi dutenak. Gizarteak aldaketa handiak eman ditu azken urte hauetan eta katekesiak ere aldatzen joan behar du: hizkuntza berri bat aurkitu, erritoak (mezak,

sakramentuak eta abarrak) beste modu batera ospatu eta guk erabiltzen dugun argot teologiko hori itzuli beste hitz ximpleagoak erabiliz; horrela bakarrik uler dezakete eliztarrek. Batez ere gaztetxo eta gazteekin gabiltzanontzat premiazkoa iruditzen zait niri erakutsi zidaten dotrina beste modu batera irakastea, ebanjelioak berri ona izan behar badu gure gazteentzat erraz ulertuko duten eran aurkeztea. Duela hirurogei urteko eskemek ez dute balio gaurko jendearentzat.

Gotzainak galdetu zidan ea zer egiteko asmoa nuen aurrerantzean. Zubi izaten jarraitu nahi nuela esan nion. Opusen planteamenduekin jarraitu nahi dutenen eta planteaketa berriak gustatuko litzaizkiekeen artean. Euskarari ere garrantzia handia ematen diot eta Ibaetan (Donostian da goen auzo euskaldunena agian) euskararen presentzia handia eskatzen dute eliztarrek. Parrokoak tutik ez dakienez, nik betetzen dut hutsune hori. Arazoak arazo, esperantzarik ez dut galtzen behintzat.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Itxaso Orbegozo | Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Luken Arkarazo

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Mahaikideak, hautatuak

Aurreikusitako moduan, urriaren 17ko udalbatzaren ezohiko osoko bilkuran egin zuten Espainiako Gorteak berritzeko azaroaren 10eko hauteskundearen errepikapen egunez, hauteslekuetan lan egitea egokituko zaien mahaikideen zozketa.

Hautatuak jakinarazpena egunotan jasoko dute Udal-

tzaingoaren eskutik. Guztira zortzi lehendakari, 16 bokal eta haietako bakoitzaren bi ordezkoko hautatu ziren, 72 lagun guztira. Haietatik 24 lagunek lan egin beharko dute hilaren 10eko hitzorduan.

Ohi bezala, hauteskundearen bezperatan, egun horri begirako argibideak jasotzeko bilerara deituko dira 72 lagunok.

Posta bidezko bozketa, hastear


■ Urriak 28-azaroak 3: Posta bidezko bozka jasotzeko epea.

■ Urriak 31: Posta bidez bozkatzea eskatzeko azken eguna Co-reoseko bulegoan.

■ Azaroak 1-8: Kanpaina.

■ Azaroak 8: Posta bidez bozkatzeko azken eguna, 14:00ak arte.

■ Azaroak 10: Espainiako Gortetarako hauteskundeak.



Posta bidezko bozka jasotzeko epea hastera doa.

Ika-mika

Lurdesen eskuzabaltasunari esker onez

Ursubilgo udaletxean urte luzez herritarren atea zabalik izan duen Lurdes Zubeldiari gure esker ona eman nahi diogu. Euskara hutsez lan egin, hizkuntza eta euskal izaeraren norabide zuzena erakutsi, etxe handi

horretan paperak nola eta non aurkeztu behar diren azaldu eta inongo zirrikiturik itxi gabe abegikortasunez lan egin duena omendu nahi dugu Nafartarrak kultur taldearen ize-nean.

Xumetasunean txingurria-

ren moduan aritu den langile fina izan dugu bidelagun, burokrazia uxatuaz eta usurbildar herritar apala lehen mailan jarriaz eta hori guziaz bere irribarre zabala erakutsiaz. Kultur mailan lanean ari garenontzat erreferentzia izan

dugu eta laster batean bere lekua utziko du.

Zuk egindako bide luzea bezain oparoa gure iparra izan dadila. Hau guztiagatik besarkadarik beroena.

Nafartarrak taldea.

Ika-mika

Lelotzat hartzen gaituzten leloak

Hemen dira berriro, trapu zahar saltzaileak. Ateak irekitzeaz dago, beste behin ere, nahasgarria gertatzen den udazkeneko hego-haizeak lagun, demokraziaren azoka nagusia. Ez al dituzu entzuten, adiskide, isiltzen ez diren tratante nekagaitzen ahotsak? Amaierarik ez duen oihartzun aspergarriak ez al ditu zure eguneroko ordu guztiak blai eginda uzten? Ez al zaude ezaguna duzun ipuin nekagarria (orduak joan, orduak etorri) behin eta berriro entzuteaz nazka-nazka eginda? Bai horixe; zu bezala, herritar gehientxoek.

Euren axolagabekeria axolagabe erakusteko ez dute lotsarik eta, geure aurpegi barre eginaz, aurpegiatzen digute gure ustezko ardura egoera zailen arduraz erantzuteko premia garai lizun hauetan. Politikaren lizunkeriaren festa baita aurrez

aurre duguna. Ezer gertatu izan ez balitz bezala, ezer gertatuko ez balitz bezala jokatu, hemen datoz biluzik dagoen demokrazia espainiarraren erregea pasatzera, bere jantzi dotoreaz liluraturik gu uzteko asmoz.

Baina, gu, euskal herritarrok, ez gara eskasak eta entendi-menduz jantzita dotore (omen) gabilza. Tira, onartu dezagun; haserrerako botereprontoko jorra ere badugu, agian tantorik lortzeko batere eraginkorra gertatzen ez dena. Asper-asper eginda gaudela?; nola ez! Espainiako antzerki ustel hau pikutara bidaltzeko gogo-beste behin-piztu zaigula?; bai noski! Ez dugula ezer jakin nahi feriatu honetako ezerekin? Ulergarria erabat!

Gaizki egingo genuke, edozein eran, komediantek koadrilla hori gutxietsiko bagenu. Aurkaria ez gutxietsi; are gu-

txiango arerioa. Argia gara, ustez, baina esango nuke gu despistatzea ez dela kontu zaila eta sarritan harropuzkeriaren ur bizi-tan itotzen garela. Gehi-gi pentsatu gabe, ezgai ikusten dugu etsaia, ahul arrazoiez; bere aurpegi kaskarrena erakutsiz gure harrokeria hauspotzen dela ohartu ere egin gabe.

Antzerkitik dena du, zentzu ustelenean, hegoaldeko gure bizilagunen erresumaren politikak; eta itxura da nagusitzen dena. Hala ere, argi: Espainian politikak ezgaitasunaren apologia dirudienean, arerioa erasorako prest dagoen seinale. Ez dugu oraindik ikasi-eta makina arrazoi dugu lezioa ondo ikasita izateko-aztertu, ezagutu eta ulertu behar dugula inoiz garaituko badugu. Ezinbestean, nahitaez, aurre aurre egon eta mantendu beharrean gaude, eta jokotik alde egiteko gogoari

aurre eginez jokoan segi, nahiz barrenak ihes egitera bultzatu.

Ez dugula hor segi nahi?; beraiek ere badakite! Akaso norbaitek uste du benetan gure boto bila dabilzala? Orain Espainia, Espainia beti,... eta antzekoekin gure botoa espero dutela pentsatzen ari gara?; Ez dira horren ergelak. Gure buruari oso sinplea den galdera egin beharko genioke; aurkariak berak nahi duen lekuan gaitu? Garbi dago ez dagoela gure botoaren zain; orduan, zein da guri begira esku artean duen aukerarik onena eta azkarrena?; abstentziora bultzatu nahi gaituzte! Gure botoa ez; gure abstentzioa dute helburu eta horri begira hasi da dagoeneko oraingo antzezlan. Komedia itxura duen tragedia honetan ez gaitzatela bufoi paperean harrapatu!

I. Zabaleta.

12 kontratazio berri Beterri-Buruntzan

Eusko Jaurlaritzaren 2019ko Tokiko Enplegu Planaren diru-laguntza-
ren baitan, udal brigadetan lan
anitzeko operario gisa jarduteko
12 lanpostu berri iragarri dituzte
Beterri-Buruntzako udalek urtea
amaitzerako. Lanpostu hauetan
aritzeko lehentasuna izango
dute lan merkatura sartzeko
zailtasun gehien duten kolekti-
boek: “emakumeek, 55 urtetik
gorakoek eta DBE hartzaileek”.
Urtea amaitzerako gauzatuko
diren kontratazioak lanaldi
osokoak izango dira eta bost hi-
labeteko iraupena izango dute.
Udal bakoitzak beharren ara-
bera zehaztuko du kontratazio
kopurua.

Prestakuntza saioak Usurbilen

Zereginotan hasi aurretik, pres-
takuntzarako egitasmoa ere
landu dute Beterri-Buruntzako
udalek eta EAGI-k, Eraikuntza
Eskolak. 150 orduko iraupena
izango duen ikastaro hau Usurbilgo
prestakuntza zentroan
egino da, urriaren 28tik aben-



Udal bakoitzak beharren arabera zehaztuko du kontratazio kopurua.

duaren 11ra. “Hiri espazioen
mantenua eta udal brigaden
baitan lan anitzetako operario
bezala lan egiteko oinarritzko
abileziak eta ezagutzak barne-
ratzea du helburu. 4 arlo lan-
duko dira ikastaro horretan:
bide publikoen mantenua, sa-
neamendu sareen mantenua,
oinezkoentzako bideak eta es-
pazio publikoen mantenua eta
hiri altzarien mantenua”, Be-
terri-Buruntzako udalek berri
eman dutenez. 15 lagunentzako
lekua egongo da ikastaro honetan.
“Ikastaro honetan parte

hartuko dutenen eta ondoren
kontratatu direnen artean
erdiak emakumezkoak izatea
lortu nahi da”, ohartarazi dute
Beterri-Buruntzako udalek.

Ikastaroa 15 lagunek egin
ahalko dute, eta aipatu mo-
duan, urtea amaitzerako “le-
hen 12 pertsona kontratatuko
dira”. Lan deialdia lanbide-
eus atarian argitaratu dute eta
atari horretan bertan bideratu
ahalko dute interesdunek izen
ematea.

■ Informazio gehiago:
usurbil.eus / 943 371 951

Aginagako Arrate tabernaren esleipena

Usurbilgo Udalak urtebeteko
tartearen esleipen prozesu hau
abiatzen duen bigarren aldia
da. Iazko uztailean egin zen le-
henengoa, ez zen inor aurkeztu
eta taberna esleitu gabe geratu
zen. “Zerbitzu hori eman zedin
lanean jarraitu zuen udal go-
bernuak: gerora, zerbitzu hori
emateko prest agertu zenik izan
zen, eta kontratu txiki bat egin
zitaiaion. Orain, bigarren esleipe-
nean, hamabost eguneko epea
irekiko da”, iragarri du Udalak.

Deialdia

■ Proiektuen aurkezpena: urria-
ren 23ra arte, udal erregistroan
edo postaz Udalera helarazita
(Usurbilgo Udala/ Joxe Mar-
tin Sagardia plaza z/g / 20170
Usurbil).

■ Kontratuaren iraupena: urte-

betekoa, urtez urte berritzeko
aukera gehienez 4 urtera arte.

■ Kanona: gutxienez hileko 25
eurokoa (+ %21eko BEZa, 5,25
euro: guztira 30,25 euro). Es-
leitzzaileek kopurua igo dezakete
eskaintzetan, baina kontratuak
iraun artean ez da kanona berri-
kusiko.

■ Esleipendunak bete beharre-
ko baldintzak:

-Hizkuntza gaitasuna bermatua
izatea (B2 maila egiaztatzea).

-Elikagaien manipulaziale titu-
lua izatea.

-Zerbitzua herritar guztiei za-
baltzea.

-Erabiltzaile gehienak erretiratu
eta pentsiodunak direnez, haiei
Udalak onarturiko prezioak apli-
katzea.

-Instalazioen eta ekipamenduen
mantenua bermatzeko egin be-

harreko gastuak esleipenduna-
ren gain geratuko dira, “legez ja-
bearen ardurakoak direnak izan
ezik (zehaztapenak plegu ad-
ministratiboetan jasota datoz)”.
Udalak taberna erabat hornitua
utziko du.

■ Eman beharreko zerbitzuak:
tabernaren kudeaketa, “taber-
na-jantokiaren mantenua, us-
tiapena eta garbiketa; komun-
en garbiketa (nahiz eta erabilera
publikokoak izan); eta, taber-
natik beheko irteerara doazen
eskaileren eta beheko sarrere-
ren garbiketa. Halaber, eslei-
pendunaren betebeharra izango
da zahar egoitzako gelen ate
zaintza-lanak egitea”.

■ Informazio gehiago:
usurbil.eus
943 371 951.

■ Deitzailea: Usurbilgo Udala.

Ordenantza fiskalak, hasieraz onartuak

Azken urteon ildotik, Kon-
tsumorako Prezioen Indizea
(KPI) aplikatuta egunera-
tuko ditu Usurbilgo Udalak,
2020ko zerga ordenantzak.
Hala erabaki zuen udalaba-
tzak gehiengo osoz, urria-
ren 17an egin zuten ezohiko
osoko bilkuran. EHBilduk
alde bozkatu zuen, EAJ eta
PSE abstentitu ziren. KPIa-
ren aplikazioa urte berrirako
ordenantza fiskalak egune-
ratzeko baliatuko den iriz-
pide orokorra izango bada
ere, badira azken plenoan
zehaztu zituzten zenbait
salbuespen, gizarte eta kirol
zerbitzuetan esaterako, udal
sail hauetako proposamena
hartu da kontuan. Udalaba-
tzak hasieraz onartutako
erabakia 30 lanegunetz jen-
daurrean jarriko da.

Euskaraldirako laguntzaileak behar dira

2020ko bigarren edizioa
prestatzeko bolondresak
behar ditu Usurbilgo Euska-
raldiak. Lau lan talde osatu
dira: denetarikotik entitateekin
lan egiteko, ekintzak anto-
latzeko, edota koordinazio
eta komunikazio lanak bide-
ratzeko. Lan taldeetan izena
emateko usurbil@euskaral-
dia.eus helbidera idatzi edo
esteka honetako galdetegia
osatzea eskatzen da:
<https://forms.gle/urLU7xxi-26Jdc6RX7> edo

Aurkezpena Kulturaldian

Euskaraldiaren estreinako
edizioak Usurbilen izandako
eraginaren gaineko azterla-
na osatu du Soziolinguistika
Klusterak Usurbilgo Udalak
eskatuta. Azaroaren 6an
18:00etan Potxoenean aur-
keztuko dira emaitzak.

Gurasotasun baimen parekideak

Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako urratsei jarraiki, Usurbilgo Udaleko udalbatzak ere udal langileen gurasotasun baimenak parekatzea erabaki zuen EHBildu eta PSE-ren aldeko bozkekin, urriaren 17ko ezohiko osoko bilkuran. EAJ abstenitu zen. Honenbestez, 18 asteko guraso-baimena izango dute, “2019ko irailaren 1erainoko atzeraeraginez”. Horretarako gizarte segurantzari egin beharreko ordainketen kostua Udalak bere gain hartuko du.

126 egun

Erabaki honekin ama biologikoen pareko baimenak izango dituzte, ama biologikoak ez diren gurasoen baimenek. Horretarako, Udaleko langileen lan-baldintzen araudia jasotzen duen hitzarmeneko gai honi lotutako 41.1 puntua



Udal langileek 18 asteko guraso-baimena izango dute, “2019ko irailaren 1erainoko atzeraeraginez”.

18 ASTEKO BAIMENA

“Usurbilgo Udaleko udalbatzak udal langileen gurasotasun baimenak parekatzea erabaki zuen”

eraberritzea onartu zuen udalbatzak. Eta honela jaso auztea: “41. artikulua: Ama biologikoa ez den gurasoaren lizentzia.

1-Seme-alabaren jaiotza, harrera edo adopzioa dela-eta, 126 eguneko lizentzia izango du langileak. Lizentzia hori enplegu publikoaren araudian indarrean dauden legeek dioten baldintzetan hartuko da”. “Ama biologikoa ez den lizentzia kasuz ari gara”, zehaztu zuten azken plenoan. Lan hitzarmenaren beraren indarral-

dia aurten amaituko da. Udal gobernu taldeak uena baliatu nahi izan du, hitzarmenaren edukia txukuntzeko eta aipatu aldaketa hau bideratzeko.

2018ko Kontu Orokorra, betiko onartua

Hasieraz onartu ostean, epea zabaldu eta inork alegaziorik aurkeztu ez ostean, behin betiko onartu zuen udalbatzak iazko Kontu Orokorra hilaren 17ko ezohiko osoko bilkuran. Alde bozkatu zuen EHBilduk. EAJ eta PSE abstenitu ziren.

2019ko aurrekontuaren exekuzioa

Indarrean den araudiak agindu moduan, aurrekontuaren exekuzio espedientearen berri eman behar zaio hiruhilero Gipuzkoako Foru Aldundiari eta udalbatzari. Hala egin zuten urriaren 17ko ezohiko osoko bilkuran.

Sagarberritu, sagardo botilak berrerabiltzeko

Sagardo sektoreko botilak garbitu eta berrerabiltzeko sistema jasagarri baten bideragarritasun teknikoa, ingurumenekoa, soziala eta ekonomikoa erakustea xede duen Sagarberritu izeneko proiektu pilotua abiarazi dute Beterri-Buruntzako udalak. Proba moduko esperientzia honek iaz egindako ikerlan batean du jatorria. 2018an Beterri-Buruntzako 40 sagardotegietan erabili eta berrerabiltzen diren beirazko botilen datuak bildu ziren. “Egindako azterketatik ondorizatu zen, sagardo botilen berrerabilpena indartzeko aukera dagoela, ekonomia zirkularra aktibatuz” eskualde honetan.

Hain zuzen, guztira, eskualde honetan ekoizten diren 1.842.553 sagardo botilatik %78 berrerabiltzen dira;

401.673 botila guztira. Botila hauen berrerabilpena sustatuta, “botila bakoitzaren iraupena luzatu nahi da, erabilitako produktua berriz ere lehengai bilakatzea lortu nahi da”. Eta eskualdean estrategikoa den industria indartu eta balorean jarri, “autosufizientzian oinarritutako sistema iraunkorragoa lortzeko, beira botilak gertuen dauden instalazio egokietan tratatzeko, hondakin kopurua jaitsi eta energia kontsumoa murrizteko eta garraioetako CO2 kopurua jaisteko”, Beterri-Buruntzako udalen esanetan. Horregatik funtsezkotzat jotzen dute udalerriok eta proiektuaren sustatzaileek “elkarlanean ingurumenean errespetatu eta zaintzeko lanean estrategia partekatua izatea”. Proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen

Sailak lagundu du diruz eta Gipuzkoako Sagardo Elkarte eta Euskal Sagardoaren baitako entitateak ditu sustatzaile, San Marko Mankomunitatearekin batera.

“Botilak Garbigunera eramanez, berrerabilpen ziklo honetan parte hartzeko aukera dago”

San Markoren baitako garbiguneetan botilok jasotzea errazteko gune berezituak jarri dira. Sagardotegiez gain, herritarrek sagardo botilak “Garbiguneetara eramanez eta berrerabilpen ziklo honetan parte hartzeko” aukera dute. Hortik proiektuaren izena; Sagarberritu. Erabilitako botilen kaxak Garbigunera eramanez, handik garbiketa enpresara garbitzera eta gero berriro merkatura, hortxe egin dezaketenez bidea, ekonomia zirkularrarekin filosofiarekin

bat eginez.

Proiektu honen izaera soziala nabarmentzen dute, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalek. Sagardo botilak biltzeko “lanpostu premia berriak sortu” baititu. Beharrok eskualdeko udalen lan hitzarmenetik jaiotako Beterri-Errortuz irabazi asmorik gabeko soziateatea ari da kudeatzen; “pertsonek orientazioa, formazioa eta laneratzea sustatzea du helburu”.

Proiektu honekin, aurrerantzean beirazko botilen berrerabilpenak merkaturatu izango duen eragina erakutsiko da eta Beterri-Buruntzako udalen esanetan, esperientzia “bestelako ekimen eta testuinguru geografiko zein ekonomikoetan” sustatu nahi da, “dimentsio handiagoa hartzeko”.

Mugiment zerbitzua martxan

Aktiboak ez diren pertsonen artean bizi ohitura osasuntsuak sustatzeko "Usurbil Suspertu" udal egitasmo berria martxan da.

"Jarduera fisikoaren preskripzio, orientazio eta aholkularitza" zerbitzua eskainiko du Udalak doan, osasun nahiz kirol munduko eragile eta erakundeekin elkarlanean. Programa honen erabiltzaile izan daitezkeenak lehenbizi anbulatorioan artatuko ditu medikuak eta profesionalak egoki ikusten badu, proiektu honetan parte hartzera bideratuko du; Udalak kontratatu duen Irati Ibarbia teknikariarengana. Ibarbiak pertsona bakoitzari ondoen egokitzen zaion ariketa fisikoari buruzko orientazio eta aholkularitza zerbitzua eskainiko dio.

Ordutegiak

Asteazkenetan 9:00-11:00 artean Oiarde Kiroldegian eta 11:00-13:00 artean anbulato-



Osasun nahiz kirol munduko eragile eta erakundeekin elkarlanean aritu da Udala.

"USURBIL SUSPERTU"

Jarduera fisikoaren preskripzio, orientazio eta aholkularitza zerbitzua eskainiko du Udalak, doan

rioren izango da.

Erabiltzaileak gainera bi urteko jarraipena jasotzeko aukera izango du. "Usurbil Suspertu" bonoa emango zaio,

"ordainpekoak diren kiroldegiko ikastaro, tailer eta klubetako entrenamenduetarako. Aholkulariak gomendatutako jarduerara ondo datorkion frogatzeko aukera emango dio bonoak pazienteari. Bono horrekin, izan ere, doan erabili ahal izango ditu kirol instalazioak, epe batean: hori amaitzean, jarraitu nahi izanez gero, bere kabuz izena eman eta ordaindu beharko du desio duen hori".

Liburutegiaren Astea azken txanpan

Urriak 24, osteguna

■ 18:30 "Abezedario titirijario" emanaldia.

■ Zehaztasunak: "Juan Kruz Igerabideren eskutik, letrekin jolasean ibiliko gara Liburutegian. 6 urte-tik gorako neska-mutleik, eta gaiarekiko interesa izan dezakeen edonori zuzendutako saioa izango da. Iraupena: ordu bete inguru".

Urriak 25, ostirala

■ 18:30 "Jar ezazu Liburuzain bat zure bizitzan".

■ Zehaztasunak: "Idoia Torregarai usurbildar umore-gileak, espresuki Sutegi Liburutegirako prestaturiko umore-pieza bat eskainiko digu; saioa interaktiboa izango da, eta Liburutegiko erabiltzaile izan edo ez, gazte(txo) zein heldu...dibertimendua ziurtatuta dago! Eta lasai, emanaldiak 45 minutu iraungo ditu, beraz, ostiral iluntzeko poteorako libre izango zarete".

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Lapurtutako angulak erriora bueltan

Angula gehiago ditu erriok azken egunotan. Frantzia eta Espainian legez kanpo eskuratutako angulen trafikoa egotzita, lau talde desberdinetan jarduten zuten hamar lagun atxilotu ditu Guardia Zibilarren "Seprona"-k, Portugal eta

Frantziako polizien eta Europolekin koordinatuta. "Fame" izeneko polizia operazioaren baitan izandako 10 atxilotetak Gipuzkoan, Madrilen eta Asturiasen izan dira. Beste sei lagun ikerketapean dituzte, ustez auzi honetan impli-

katuak egon daitezkeelakoan. 400 kilo angula kendu dizkiete eta berriz ere jatorrizko naturagunera itzuli dituzte angulok, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz: Bidasoa eta Usurbil zeharkatzen duen Oria ibaie-tara. Atxilotutako lagun

helburua bete eta ia tona erdiko pisudun angulok Asiako merkatura heldu izan balira, 600.000 euroko balioa izan zezaketen hango merkaturan eta aipatu lau taldeok urtero 6 milioi eurotik gorako irabaziak eskura zitzaketen.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK -TOSTAK
MENU BEREZIAK

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

Kataluniaren askatasunaren alde

2017ako urriaren 1ean erreferenduma antolatu eta Kataluniako herriari hitza emateagatik 100 urteko espetxealdira zigortu zituen Espainiako Auzitegi Gorenak 12 buruzagi independentista katalan aurreko aste hasieran. Berehalakoa izan zen erantzuna kalean. Gure Eskuk deitutako elkarretaratze jendetsuen ondotik, urriaren 18an Katalunian bertan ehunka mila lagun kalera aterarazi zituen greba egun historikoan, Usurbildik elkartasuna helarazi zitzaizen, EHBilduk eta EAJ-k eguerdi partean udaletxe aurrean deitutako elkarretaratzean. Bi eragile politikook adosturiko erakunde adierazpena plazaratu zuten, udal ordezkari, langile eta herritar hainbat erakarri zituen mobilizazioan:

Usurbilgo EHBildu eta EAJ-ren erakunde adierazpena

1-Usurbilgo Udalak ziurtatzen du demokraziaren adierazpen baketsua, indibiduala zein kolektiboa gauzatzea eta herriari hitza ematea ez dela delitua. Hori horrela, urriaren 1eko erreferenduma tresna demokratiko eta zilegizkoa izan zela, eta Kataluniak eta Euskal Herriak berezkoa dutela etorkizuna erabakitzeko eskubidea.



Aurreko ostiralean, elkarretaratzea egin zen udaletxe aurrean.

ADIERAZPENA

“Usurbilgo Udalak elkartasuna adierazten die Kataluniako preso eta erbesteratu politikoei nahiz haien etxekoei”

2-Usurbilgo Udalak argi eta garbi adierazten du ezin direla justifikatu Espainiako Auzitegi Gorenak eta Estatuko botereek Kataluniako agintari eta gizarte eragileei bizkarreratutako auzia eta ezarritako zigorrak.
3-Usurbilgo Udalak nabarmentzen du Kataluniako ‘Proces’-aren aurkako auziak eta epaiak Zuzenbide Estatuaren

itxuragabetzea dakartela eta ezbaian jartzen dutela espainiar demokraziaren homologazioa nazioartean.

4-Usurbilgo Udalak azpimarratzen du euskal herritarrei zuzenean eragiten digula Estatu espainiarraren erantzun bortitzak, izan ere, herrien borondatea era demokratiko eta baketsuz erabakitzea mozten du. Eta arazo politikoari tribunalen indarrez, 155. artikulua- ren ezarpenez edo erabakitze eskubidearen alde egiten dutenei edonolako neurri bidegabeak ezarri erantzuten dio, irtenbide elkarrizketatu eta negoziatua bilatu ordez eta he-

rriari galdetu beharrean.

5-Usurbilgo Udalak Estatuko botereei eskatzen die, espetxean dauden preso politikoak berehala aske utz ditzala eta, era berean, erbesteratu politikoen aurkako auzibideak bertan behera utz ditzala.

6-Usurbilgo Udalak elkartasuna adierazten die Kataluniako preso eta erbesteratu politikoei nahiz haien etxekoei, hala nola, Kataluniako herriari eta erakundeei, eta Usurbilgo herritarrei dei egiten die bat egin dezaten herriari hitza ematearen aldeko ekimen baketsuekin, demokraziaren eta askatasunaren alde.

Sindikatuak ere elkarretaratzeak deitu zituzten



Langileak ere kalera atera ziren urriaren 18ko eguerdian. Ezkerretara, Osinalde industriagune atariko bilkura. Eskubitara, Michelin aurrean eginikoa.

Tipi-tapa, adinekoen ohitura osasuntsuen bidean aurrera

Asteazken goizero 11:00etatik aurrera adineko hainbat herritar ikusiko dituzue herrian barrena osteratxoa egiten. Usurbilgo Udalak sustatzen duen “Goazen kalera” egitasmoko parte hartzaileak dira. Adineko eta dibersitate funtzionalak dituzten herritarren bizi kalitatea hobetu eta ohitura osasuntsuak sustatzea helburu duen egitasmoak hiru urteko bidea jorratu du jada herri honetan.



Usurbilen bezala antzeko ekimenak martxan dira Gipuzkoan barrena.

Usurbilen bezala antzeko ekimenak martxan dira baita Gipuzkoa luze zabalean. Egitasmok herrialdean 900 bat lagun mugiarazten ditu astero. Haien artean “Tipi-tapa” izeneko programa orokor honek dituen onurak aztertu, zertan den hausnartu eta etorkizunarako hobekuntza proposamenak biltzeko ikerketa bideratu du Eusko Jaurlaritzak, Tolosa eta Goierri eskualdean arreta jarrita. Eskualde horretan kokatua dute baita Usurbil. Esperientzian gainean Osakidetza eginiko azterlaneko emaitzak aurkeztu zituzten urriaren 16an Artzabalen. Hirugarren ikasturtea abiatu berri duen Usurbilgo “Goazen kalera” ekimena ospatzen zen asteazken goizean hain zuzen. Ekimeneko hainbat partaide bildu zituen, osasun publikoko ordezkariak aurkeztu eta

GOAZEN KALERA EKIMENA

“Adinekoen eta dibersitate funtzionalak dituztenen bizi kalitatea hobetu eta ohitura osasuntsuak sustatzea helburu duen egitasmoak hiru urte bete ditu”

Udalak antolatutako ekitaldira, haietako batek baino gehiagok ikerketa honetan parte hartu baitu gainera.

Azterlana bi bideotatik landu dute; batetik, 13 herrietako 464 lagunek bete duten inkesta bateko datuak jaso dituzte. Horrekin batera, 9 partaide talde elkarrizketatu dituzte. Taldeotako bat usurbildarrek osatu zuten.

Egitasmoaren giza dimentsioa, hobekien baloratuena

Ikerketaren datuak eskutan,

erabiltzaileen asebetetze maila 10eko puntuazio baten baitan, 9tik gorakoa dela ondorioztatzen dute. Egin zaizkien galdera guztien erantzunen puntuazioa zortzitik gorakoa. Egitasmoari puntuazio altuena eman diotenak, emakumeak, alargunak eta adin altuena duten pertsonak dira. Aipatzeko modukoa den beste datu bat, bizi ohitura osasuntsuak sustatzea helburu duen egitasmo hau helburu baino bitarteko gisa baliatzen dute erabiltzaileek. Osasunarako dakartzkien onurez gain, isolamendu eta bakardadea hautsi eta jendearekin egon eta lagun berriak ezagutzeko puntuazio altuagoarekin baloratu dute ariketa fisikoa egitea baino.

Datuok erabiltzaileek betetako inkestetatik jaso dituzte osasun publikoko ordezkariak. Baina aipatu moduan, talde

elkarrizketak ere egin dituzte, egitasmo hauen parte hartzaile, laguntzaile lanetan jarduten duen bolondres eta erakunde sustatzaileen artean. Guztion-gandik iritzi komunak jaso dituztela aipatzen zuten Artzabalgo joan den asteko aurkezpenean.

Ikerlaneko erantzunetan osasunaren giza dimentsioak duen garrantzia agerian utzi dutela nabarmentzen dute; ariketa fisikoa egiteaz gain, etxetik kalera atera, aspaldi ikusi gabeko lagunekin egon, auzo ezberdinetako bizilagunak harremandu, lagun berriak ezagutu, ondo pasatzea. Egitasmo hau gauzatzea ahalbidetzen laguntzen duten bolondresak lagundu eta laguntzean erabilgarri sentitzea ere oso positiboki baloratu den beste alderdi bat izan da.

Programa hauen barne antolakuntza ere aztertu dute. Ikerlanak agerian utzi du, udalerrri bakoitzak bere modura egokitu duela “Tipi-tapa”. Ekimenok izan duten jarraikotasuna nabarmendu zuten. Egitasmoon biziraupenean, eragile eta bolondres ezberdinen parte hartzea ezinbestekoa izan dela aipatu zuten; herri guztietan egon direla pertsona gakoak antolaketa lanak bideratzeko. Elkarlan sare bat sortu da eta horrek berak egitasmoa indartu du.

Elkarlana eta ekintzen sustapena, etorkizunera begira

Azterlan honek etorkizunera begira jarri du egitasmoa bera. Autokritikarako bidea zabaldu nahi izan dute ikerlan honen bidez, hobetzeko egon daitezkeen proposamenak bildu.

Esaterako, zergatik eta zertarako sustatzen segi behar den egitasmoa, egun parte hartzen ez duten lagunek zergatik ez duten bat egiten ekimenekin, nola ikusten duten partaideek

beren burua egitasmoan eta dinamika hau kanpotik nola antzematen den.

Ondorioetan positiboki baloratzen da programa orohar, baita erakunde eta

bolondresen arteko elkarlana. Helburuak egokitzea aholkagarritzat jotzen dute, eta ekintzak antolatzea parte hartzea sustatu eta jarraipena bermatzeko.

Sorterrien Usurbil, Mundualdian

Sorterri guztien topagune bilakatzen den Mundualdiaren edizio berria ate joka dugu Usurbilen. Azaroaren 9an dantzak, gastronomiak eta musikak bat egingo dute pilotalekuan, oraingoan larunbat arratsaldean ospatuko den jaialdian.

Dagoeneko sorterri anitzetako herritar talde bat Usurbilgo Udalarekin eskuz esku antolatzen hasia da eguna. Segidan duzuen egitaraua josi dute. Osagaien artean, nor bere herria erakustoki bilakatzen duten jakiak dastagai jarriko ditu bi aste barru pilotalekuan. Herriko taldeen parte hartzea ere izango da; Orbeldi Dantza Taldearena, eta eskola kiroleko egitasmo eraberrituko, Zirimarako kideena. Hezurbeltzak taldeak musikatuko du eguna.

Lehen migrazio olatua aztergai
Mundualdiak usurbildarron hartuemanak estutzen lagundu, elkar ezagutzen eta elkarbizitzan sakontzeko zubi lanak egin ohi ditu. “Herriko komunitate aniztasuna erdigunean jartzea da festa horren helburua”, Udalaren esanetan. Aurreko edizioen ildotik, “munduko hainbat txokotatik etorritako herritarrek hartuko



Herritar talde bat Usurbilgo Udalarekin eskuz esku antolatzen hasia da eguna.

AURTENGO BERRITASUNA

“1960 eta 1970.

hamarkadetan Espainiako herrialde ezberdinetatik Usurbila etorritakoengan jarri nahi da arreta”

dute frontoia, eta, horiez gain, Espainiatik etorri zirenei ere lekua egingo zaie”, iragarri dute. 1960 eta 70. hamarkadetan Espainiako herrialde ezberdinetatik Usurbila etorritakoengan jarri nahi da arreta.

Ez bakarrik Mundualdia ospatuko den egunean. Gogoan izango duzue iaz, hitzordu honen bueltan Usurbilgo herritarren jatorri aniztasunaren inguruko ikerlana bideratu zuen

Udalak Aztikerren bidez. Azterlan berria iragarri du orain. Espainiako herrialdeetatik gure artera “azken hamarkadetan izan den lehenengo olatu garrantzitsuen” aztertu nahi da. Hain zuzen, “hainbat arrazoi tarteko, elkarri bizkarra emanda bizi izan diren bi komunitate izan dira haiek eta usurbildarrak. Ez da Usurbilgo kasua soilik izan, fenomeno orokorra izan da Euskal Herrian, baina horri ekarpena egin nahi dio Usurbilgo Udalak”. Bi komunitateak aztertuko ditu, herriari jaiotakoak nahiz herritik kanpo jaio baina hemen bizi direnak, lekukotzak bildu, “etorkizunean herrira etorriko direnei harrera hobe egiteko

eta herrian integratzeko gako direla” ulertzen baitu Udalak.

Aniztasuna, elkarbizitzaren eta eskubideen pertzepzioa, identitateak, euskal kultura, euskara, jatorriz Usurbilekoak ez diren kulturak, migrazioen nolokotasuna, integrazio bideak eta harrera aztergai izango ditu ikerlanak. “Zein da komunitate desberdinek sumatzen duten aitortza egoera herrian? Nola ikusten dute elkar komunitate desberdinek? Zein indargune eta hutsune sumatzen dituzte elkarbizitzari dagokionez? Zer eskaintzeko prest daude, eta zer jaso nahi lukete besteengandik?” galderen erantzunak jorratu nahi ditu ikerlan berriak.

Elkar ezagutza eta elkar aitortza sustatzea

Horretarako, iragarri dutenez, “atzeri begiratzeko ariketa egingo du ikerlan horrek, etorkizunari modu egokiagoan heltzeko. Garai hartako migrazioari begiratuta, guztien arteko elkarbizitza sustatzeko baldintzak finkatu nahi dira”. Eta horretarako, elkarbizitza osasuntsu eta kontzientea ahalbidetzeko ezinbestekotzat jotzen dute elkar ezagutza eta elkar aitortza sakontzea.

60. hamarkadatik aurrera Es-

painiako txoko ezberdinetatik gure artera etorritakoa ez da migrazio olatu bakarra izan. Bada Udalak nabarmentzen duen bigarren bat ere, 2000. urteaz geroztik jazotakoa. “Ameriketako, Afrikako eta Europako hainbat herrialdeetatik etorritako norbaita izan ziren hasieran, eta, gerora, familiak”, zehaztu dute Udaletik. Eta azken 50 urteotan talde mota desberdinetan heldutakoak baita, “portugaldarrak eta errumaniarrak, batez

ere”.

Migrazio mugimendu guztiok bateratzen dituen elementu bat bada; guztiak ere asmo berberak batzen ditu: bertan lan egin eta bizi-baldintzak hobetzeko helburuarekin etorri ziren”. Aztergai izango ditu kolektibok Udalaren ikerlan berriak.

Mundualdia

Azaroak 7, osteguna

■ 19:00 Jon Maiaren hitzaldia:

“Extremaduratik bertsolaritzara: integrazio istorio bat”.

Azaroak 9, larunbata

■ Frontoian:

■ 18:00 Alkatearen agurra.

■ 18:10 Zirimara taldearen eta Orbeldi Dantza Taldearen emanaldia.

■ 19:00 Jakien dastaketa.

■ 20:30 Hezurbeltzak taldearen kontzertua.

■ Antolatzailea: herritar talde bat eta Usurbilgo Udal.

Nekane Larrañaga: “Ez gaude ohituta kanpotarrekin harremantzen”

Nekane Larrañaga usurbildarrak urteak daramatza atzerrian bizitzen. Unibertsitate ikasketak hasi zituenean erabaki zuen Bartzelonara joatea duela bost urte baino gehiago. Noiz-behinka herrira itzultzen bada ere, orain Londresen bizi da eta lanean dabil bertako enpresa batean. NOAUA!rekin partekatu nahi izan ditu bere esperientziak usurbildarrak.

NOAUA! Zerk eraman zaitu Londresera?

Nekane Larrañaga: Nik beti nahi izan dut kanpoan bizi, gustatzen zait hemen bizitzea, baina orain gaztea naizenez kanpoko bizimodua ere ikusi nahi nuen. Global Training-eko aukerarekin etorri nintzen Londresera, kanpoan urtebete lan egiteko beka batekin. Han lan asko eta baldintza onak daudela ikusita, eta azken urte honetan ederki bizi izan naizela ikusita bertan gelditzea erabaki nuen.

Hizkuntza eta bertako jendearekin zer moduz moldatzen zara?

Ez zait horren gogorra egin, unibertsitate ikasketak ingelesez egin nituen eta egunerokotasun horretara ohituta nengoen. Bartzelonan egon nintzen ikasten, eta jakina, kalean gazteleraz edo katalanez hitz egiten nuen. Ahal nuen moduan aritzen nintzen, orduan bi hizkuntzetako bat bera ere ez nuen ondoegi kontrolatzen eta [kar kar kar]. Alde horretatik, ingelesa ez da arazo izan niretzat. Norvegiar egin nuen graduko azken urtea, eta bertan, mundu osoko lagunak egin nituen: Maroko, Singapur... elkarrekin denok ingelesez aritzen ginen. Orduan egunero-egunero hitz egitera ohitu nintzen. Londres-



“Londresen lan asko eta baldintza onak daudela ikusita, eta azken urte honetan ederki bizi izan naizela ikusita bertan gelditzea erabaki nuen”.

NEKANE LARRAÑAGA

“Global Training-eko aukerarekin etorri nintzen Londresera, kanpoan urtebete lan egiteko beka batekin”

era behin iritsita, hasieran ez nuen ingelesez gehiegi hitz egiten, Bilboko pertsona batekin bizi nintzen eta. Praktiketako nire nagusiak ere gazteleraz hitz egiten zidan; argentinarra zen. Orain, ordea bai, dena ingelesez egiten du orokorrean. Egoera normala bihurtu da jada niretzat.

Usurbildik kanpo bizitzen urteak daramatzazu.

Bi arrazoi nagusirengatik erabaki nuen kanpora joatea duela bost urte: ateratzeko gogoia nuelako, Usurbil txikia egiten zait eta; horrenbeste leku daude hemendik kanpo, leku berriak bisitatzeko gogoia neukan. Arrazoi pertsonalez

gain, hemendik kanpo leku askotan lan baldintza askoz hobeak daude, eta nire burua prest ikusten nuen pauso hori emateko. Ez nuen hemen taberna batean lanean aritu nahi, kanpoan ikasi dudana horretan lan egin badezaket.

Zer egin zaizu zailen kanpoan eman dituzun urte hauetan?

Hasieran, Bartzelonara ikastera joan nintzenean zaila egin zitzaidan inor ez ezagutze hori. Hemen ohituta nengoen astean zehar klasera joaten, eta asteburuetan lagunekin zerbait hartzera joan edo familiarekin egunpasak egiten. Hasieran ez nuen jende askorik ezagutzen, eta lekuz kanpo ere sentitzen nintzen batzuetan. Faltan botatzen dira zenbait gauza horrelakoetan. Nik ez dut gaizki pasatu, baina badago jendea etxea gehiegi faltan botatzen duena. Nik ere faltan botatzen dut herria, baina eramangarria da egoera. Bertako ohituretara moldatzen bazara aukera ede-

rra da.

Etiketik zer botatzen duzu faltan gehien?

Ez dut ezer zehatzik botatzen faltan. Batzuetan asteazken goiz batean edo herriko tabernaren bateko pintxoak jateko gogoia jartzen zait. Ezin, ordea, han ez dago ez pintxorik, ez eta Usurbilgo tabernarik ere. Ondoan harrapatzen dudana esaten diot: “I wanna eat a pintxo right now”, baina gaizki begiratzen didate. Hori da baita ere gauza bat asko gustatzen zaidana. Usurbilen zaudenean egunero jan ditzakezu pintxoak, eta azkenean hori bakarrik egiten duzu. Bi taberna eta hiru plan izaten dituzu beti. Azkenean horrela aspertu egiten da bat. Londresen nagoenean Usurbilen egingo nituzkeen planak faltan botatzen ditut. Bueltatzen naizenean faltan botatzen dudana hori egiten dut, eta oso gustura geratzen naiz. Gehiago estimatzen dituzu gauza txiki horiek.

“Beti bizi nahi izan dut Parisen”

NOAUA! Etxera urte gutxitan itzultzeko asmoa duzu edo han egin nahi duzu bizitza?

Nekane Larrañaga: Aukera daukat lanera Madrilerara joateko. Ez dakit hartuko dudan eskaintza hori, baina momentuz ez dut Espainiara joan nahi. Londresen jendeak askotan galdetzen dit zenbat denbora egingo dudan bertan, baina nik beti esaten diet ez dakidala, nazkatu arte egongo naizela. Ez dut uste hala ere, Londresetik zuzenean Euskal Herrira itzuliko naizenik. Orain gaztea naiz eta ez daukat loturirik. Suediara edo joatea gustatuko litzaidake. Bruselara ere joango nintzateke, edo Parisera. Beti bizi nahi izan dut Parisen. Ez dut ate hori itxi nahi. Euskal Herrian lan on bat edukitzeko aukera badaukat itzuliko naiz, baina zaila dago kontua.

Kanpoan bizitze horretatik zer ikasi duzu denbora honetan zehar?

Kuriosoa da. Horrenbeste jendekin egon naiz kontaktuan azken urte hauetan, lagunak dauzkat mundu osoan zehar. Planak egitean lagun argenti-



“Horrenbeste jendekin egon naiz kontaktuan azken urte hauetan... Lagunak dauzkat mundu osoan zehar”.

NEKANE LARRAÑAGA

“Euskal Herrian lan on bat edukitzeko aukera badaukat itzuliko naiz, baina zaila dago kontua”

narrak neuzkan, eta hitzordua jartzean lasai hartzen zuten kontua, horrenbeste ezen batzuetan hiru ordu beranduago

ere azaltzen ziren. Europako lagunok izugarri haserretzen ginen jarrera horiekin. Horrelako momentuetan hasten zara zure buruaz ikasten. Norvegiar edo alemanekin alderatzen banauzu ez naiz batere puntuala, baina argentinarekin konparatzen naizenean lasai gertatzen naiz. Oso puntuala naiz kasu horretan. Norvegiar ohitu nintzen horretara. Bostetan ge-

ratzen bazara Usurbilen, esan nahi du bostetan sofatik altxa eta prestatzen hasiko naizela. Orduan puntuala izaten ohitu ondoren, etxera bueltatzean gertatu izan zait bostetarako tabernara azaldu eta denbora asko bakarrik egon beharra. Londresen ere oso puntualak dira. Orokorrean, nire burua ezagutzen eta puntuala izaten ikasi dut.

Hizkuntzak ondo menderatzeak dituen onurak

NOAUA! Erasmus esperientzia, Global Training edo halakoren bat egitea buruan darabilkionari zein gomendio emango zenioke?

Nire gomendioa da egiteko, etxetik aldentzeko. Ez gaude ohituta kanpotarrekin harremanen, eta nire ustez, oso zaila da egoera guztietara irekita egotea beti leku berean egonda. Denek ez daukate aukera, baina izanez gero aukera hori, oportetara joateko besterik ez bada ere, joateko. Lagunak egin zurekin inolako zerikusirik ez duen jendearekin

eta ziur ezin hobeto pasatzen duzula. Hori bai, behin joanda, Espainiako jendearekin ez elkartu. Ingelesez hitz egitera behartzen zaitu espainiarrekin harremanik ez izateak. Gazteleraz ez dugu egunero egiten Usurbilen, baina jakin badakigu. Ingelesez gehiago kostatzen da hasieran, baina oso ongi hitz egiten ikasten da azkenean. Ni okerrago amaitu ez ote nuenean nago. Ingelesez oso instituzionala ikasten da eskolan eta akademietan, eta hori eguneroko hizkeratik urruti dago. Behin horrelako

esperientzia bat izanda gainera, edonora bidaiatzeko aukera irekitzen zaizu. Kanadara edo Zelanda Berrira joan nahi badut, ezagunak ditut han lekua hobeto ezagutzeko eta ostatua musutruk [kar kar kar]. Hori oso polita da. Espainiarrekin bakarrik erlazionatzen bazara aukera hori galdu egiten duzu. Batzuetan ez daukazu beste erremediorik, Erasmuseko taldean edo bertakoak tokatzen bazaizkizu. Kasu horietan Murtzia edo Extremadurako lagunak egingo dituzu, eta ez dut esaten hori gaizki da-

goenik, baina esperientziaren zati handi bat galtzen duzu. Zentzu horretan, euskaldunok kultura aldetik zerikusi gehiago daukagu espainiarrekin Europako edo atzerriko beste edozeinekin baino. Nik beste leku bateko ohitura bat oso arraroa dela uste badut, espainiar bati ere berdin irudituko zaio. “Cultur shock” horiek berdintsu gertatzen zaizkigu, eskala horretan behintzat. Beste maila batzuetan alde handiak ditugu, baina urrutitik edo atzerritarren begietatik begiratu ez horrenbeste.

1991ko marka hautsi nahi duen giza proba

Dema plazan harri tiratzaileak ikusiko dituzue asteotan. Usurbil Herri Kirolen Taldeak azaroaren 1erako antolatu duen desafiorako entrenatzen ari dira hiru talde bizkaitar. Ez dute erronka makala eskuar-tean; 1991ko urtarrilean 7 talde bizkaitar eta gipuzkoarrek, tartean usurbildarrek egin zuten hitzorduan finkatu zen marka ontzea. “Saiakera hura handia izan zen, egin ziren markak ere bai”, Usurbil Herri Kirol Taldearen esanetan. Orduko hartan, txapeldun amaitu zuten gernikarrek 4 plaza eta bi zinta egin zituzten.

Asteotan azaroaren 1eko desafioa prestatzen ari dira hiru talde bizkaitarrak: Txorierrri, Lasuen eta Leioa. Noiznahi ikusiko ditugu entrenatzen, astetarte iluntze edota asteburu goizetan baita. Ikusmina sortzen dute. “Etortzen da jendea plazara ikustera, saiakeran ari direla jakiten dutenean”, Usurbil Herri Kirol Taldeetik adierazi digutenez.

Bizkaitarren ahotan plaza maitea dute Usurbilgoa. Badiu berezi egiten dituen ezaugarriak: “luzeeran 12 zinta ditu, 30 metro. Giza proba frontoi aldeko lehen zintatik hasten da. Horrek esan nahi du lehen plaza osatzeko 33,80 metro egin beharko dituztela”, Usurbilgo Herri Kirolen Taldeetik gogorarazi dutenez. Hala dio, desafio honi begira, Gipuzkoako Herri Kirol Federazioarekin eguneratu duten araudiak. “Lehengo araudian hutsuneak zeudela ikusten zen eta horiek eguneratu ditugu, gauzak gero plazan ez nahasteko”, antolatzaileek ohartarazi dutenez.

Dema plazan dagoen 1.800 kiloko “Ur-epel” izeneko harriarekin lehiatuko dira hiru



Usurbil Herri Kirolen Taldeak azaroaren 1erako antolatu duen desafiorako entrenatzen ari dira hiru talde bizkaitar. Argazkia aurreko urteko desafiokoa da.

ANTOLATZAILEAK

“Maiatzean egin genuen giza proba hartan sei lagun ziren, baina lau tiraka bi bultzaka. Kasu honetan denek tira egin behar dute”

talde bizkaitarrak. Talde bakoitza emakumezko eta bi gizonezko tiratzaileek osatuko dute, eta haiekin izango dira botilero eta erloju zain bana. Aipatu moduan, harriari bultzak ez, 1991ko saiakeran bezala, tira egin beharko diote. “Harriari aurpegia emanda tira egiten diozu, eta bultzaka atzetik doanak. Maiatzean egin genuen giza proba hartan sei lagun ziren, baina lau tiraka bi bultzaka. Kasu honetan denek tira egin behar dute”, argitu dute antolatzaileek. Talde bakoitzaren saioa 30

minutu ingurukoa izango da. Lehiakideen parte hartzearen hurrenkera zozketa bidez erabakiko dute. Froga Euskal Joko eta Kirolen Gipuzkoako Federazioak kudeatuko du. “Froga eremu barruan botileroa egon daiteke eta erloju zaina nahi izanez gero bazterrean. Botileroak froga hasten den unetik amaitu arte ezingo du armazoa ukitu, matxuraren kasuan eta epaileak hala aginduta ez bada”, dio araudi eguneratuak. Bestalde, lehiakideren bat lesionatu edo mina hartzen badu, “ezingo da ordezkorik sartu. Min hartutako kirolariak ateratzeko aukera izango du”.

Hortxe araudia, lehiakideak lanean jada eta plaza prest. “Deialdia Usurbili eta Gipuzkoa osoari. Azaroaren 1ean plazara gerturatzen bi arrazoi handi izango dira: 1.800 kiloko “Ur-epel” harria

mugitzen, astintzen ikustea eta ondoren pintxo jan ederra izango da frontoian”.

1991ko saiakera

Ordu erdiko saioan parte hartzaileen emaitzak:

- 1-Gernika: 4 plaza, 2 zinta eta 65 zentimetro.
- 2- Mendata: 3 plaza, 2 zinta eta 20 zentimetro.
- 3-Bilbo: 3 plaza, zintarik ez eta 184 zentimetro.
- 4-Muxika-Gaztelu: 2 plaza, 9 zinta eta 0 zentimetro.
- 5-Lezo: 2 plaza, 5 zinta eta 32 zentimetro.
- 6-Iturrita: 2 plaza, 3 zinta eta 2,46 zentimetro.
- 7-Bordatxo: plaza bat, 9 zinta eta 45 zentimetro. Tiratzaileak: Pedro Alkorta, Joakin Agirre eta Joxe Ramon Arteaga. Laguntzailea: Julian Bengoetxea.

Desafioarekin sukaldaritza lehiaketa

Herri kirolen saioan gosea pizten bazaizue ez zaitezte arduratu. Legatz eta oilasko usaina darion pintxo festa ere antolatu baita hiru talde bizkaitar lehian jarriko dituen desafioa amaitu osterako. Usurbilgo Gure Pakea, Santueneko Gure Elkartea eta Aginagako Arrate adinekoen elkarteek Usurbilgo sukaldaritza lehiaketa antolatu dute azaroaren 1erako.

Pintxoak dastatu nahi dituztenentzako txartelak giza proban zehar banatzen ariko dira. Jatekoa, kirol desafioa ospatu artean prestatuko dute, elkarte ezberdinetako jubilatua izango dira parte hartzaileek. “Ez da berebiziko lehiaketa, baina gustuz antolatu nahi genuke. Bost talde osatu nahi genituzke”, azaldu digu Damaxo Lizaso Gure Pakea Elkarteko lehendakariak. Antolaketa lanok bideratzen dabilta egunotan. Talde bakoitza bi sukaldari eta epaile batek osatuko dute. Denak adinekoak. “Herriari mugimendu bat eman nahi-



Usurbilgo Gure Pakea, Santueneko Gure Elkartea eta Aginagako Arrate adinekoen elkarteek antolatu dute sukaldaritza lehiaketa.

AZAROAK 1

“Irabazleek 2020. urtean ospatuko den Gipuzkoa mailako lehian parte hartzeko txartela eskuratuko dute”

ko genioke” ekimen honekin, Gure Pakea Elkartetik adierazi dutenez. Eta hiru adinekoen arteko elkarlanean sakon-

du. Joan den asteburuan Gipuzkoako jubilatuek elkarrekin Oartzunen batu zituen ibilaldi eguna ospatzetik itzuli berriak dira hiru bilguneetako kideak. “Gustura gaude. Hala jarraitzea nahi genuke”, Gure Pakea Elkarteko esanetan.

Gipuzkoako lehiarako txartela
Giza proba ospatu artean, jatekoa prestatuko dute frontoian;

legatza saltsadun zizka-mizkak. Lumagorri zigitudun Lartzandietako oilasko erredun pintxoak ere dastatu ahalko dira, edariarekin batera. Eta sari banaketa ekitaldia ospatuko da.

Azaroaren leheneko ekimeneko irabazleek 2020. urtean ospatuko den Gipuzkoa mailako lehian parte hartzeko txartela eskuratuko dute.

Artisau Azokak hasiko du eguna

Joandakoak oroitarazteko eguna, inoiz baino biziago dator aurtun, goizean goizetik. Arratsaldeko sukaldaritza lehiaketa eta giza probaren aurretik, Artisau Azoka ospatuko da azaroaren lehenen frontoian. 24. edizio honetan ere herriko nahiz inguruetako artisauak bilduko ditu frontoian Aitzaga Elkarteak; bitxigintza, larrugintza, egur lanketa, zeramika, otarregintza, metalgintza... Hamarnaka postu, osteratxo egin nahiz erosketak egiteko. Frontoian ospatuko den azokan herritarrak aurkituko ditugu; Zorione Mendez tar-

tean. Iaz bezala, bigarren zatitzailek NOAUA!ri adierazi diotenez. Eta indarberritzeko ohi bezala, hamaiketako goxoa, auzolanean jardungo duten herriko talogile taldearen eskutik. Guztia, azaroaren 1ean goizeko 11:00etan hasita frontoian.

Gogoan izan, “Marrak” izeneko bere marrazki bilduma ikusgai jarria du urriaren 27ra arte Lasarte-Oriako Okendo plazako Mercero aretoan. Asteburuetan bisita dezakezue; ostiraletan 17:00-20:00 artean eta larunbat zein igandeetan, 12:00-14:00 eta 17:00-20:00 artean. Orbeldi Dantza Taldeak argitara emandako egutegia ere salgai jarriko du beste postuetako batean. Oraingoan, ziurtatua dagoen herriko or-

dezkaritza horixe litzateke antolatzaileek NOAUA!ri adierazi diotenez. Eta indarberritzeko ohi bezala, hamaiketako goxoa, auzolanean jardungo duten herriko talogile taldearen eskutik. Guztia, azaroaren 1ean goizeko 11:00etan hasita frontoian.

Azaroak 1, ostirala

■ 11:00 24. Artisautza Azoka frontoian. Antolatzailea: Aitzaga Elkarteak.

■ 17:00 Giza proba dema plazan Usurbilgo 1.800 kiloko “Ur-Epel” harriarekin. Parte hartzaileak: Txorierrri, Lasuen eta Leioa talde bizkaitarrak.

Ekitaldirako sarrerak 5 eurotan egunean bertan Sutegiko mahaian salgai. Antolatzailea: Usurbilgo Herri Kirol Taldea.

■ Babesleak: Usurbilgo Udala, Urbil, Saizar eta Alkartasuna Kooperatiba.

■ Bitartean, Usurbilgo sukaldari lehiaketako pintxoaren prestateta eta dastaketarako txartelen salmenta giza proban.

■ Giza probaren ostean, pintxo eta edari dastaketa.

■ Antolatzaileak: Usurbilgo Gure Pakea, Santueneko Gure Elkartea eta Aginagako Arrate adinekoen elkarteak.

Errigoraren udazkeneko kanpaina bueltan da

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka, bertako tokiko produktuen salmenta sustatu eta jasotako laguntzaren laurdena euskalgintzara bideratzen duen auzolanean oinarrituko ekimena bueltan da. “Nafarroa hegoaldea du ardatz eta euskara ofiziala ez den zonaldean eragin nahi du, eremu horretakoak propio diren elikagaiei Euskal Herrian bidea emanaz, euskaratik, euskararako eta euskaraz”, Errigoraren esanetan. Nafarroa hegoaldean ekoiztutako produktudun hiru saski izango dira aukeran seigarren edizioaren baitan:

Saski beltza (50 euro):

Orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, ardoa, oli-ba-olio birjina estra, potxak, mahats-zukua, zainzuri-krema, teilak, melokotoia almibarrean, kardua, tomate frijitua, piper txorizero mamia.



Nafarroa hegoaldean ekoiztutako produktuekin osaturiko hiru saski daude aukeran.

Saski berdea, ekologikoa (60 euro):

Orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, ardoa, oli-ba-olio birjina estra, potxak, mahats-zukua, arroza, pasta, barazki-menestra, ozpina.

Saski zuria, berezia (70 euro):

Orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, ardoa (kriantza), patxarana, extra brut, polboroiak, patxaran mantekatuak, txokolatzeko arrokak eta pikillo piper marmelada.

Miloi bat euro euskalgintzara

Eskaerak urriaren 30etik azaroaren 20ra bideratu ahalko dira NOAA! K.E.-ren egoitzan edo online bidez. Aurreko bost urteetan saldu dituzten ia 80.000 saskiekin miloi bat euro bideratu dute euskalgintzara. Ehunka nekazarik eta 25 kontserba-etxe eta olio-errotek esku hartu dute ekimen erraldoi honetan. Eskaera online bidez egiten dutenek, ordainketa ere eskaera egiterakoan bideratu ahalko dute: errigora.eus

Zumalakarregiren inguruko jardunaldia antolatu du Nafartarrak taldeak

“Zumalakarregi ta Bere Garaia” izeneko jardunaldia antolatu du Nafartarrak Kultur Taldeak azaroaren 9rako Sutegin. Pertsona honen inguruko ezagutzan sakontzeko eta bere garaia eta testuinguru historikoa hizpide duen egun osoko egitaraua osatu dute.

Azaroak 9, larunbata

- 9:00-9:30 Akreditazioak.
- 9:30-10:00 Sarrera: Joseba Tapia eta Idoia Arrieta.
- 10:00-10:45 Zumalakarregi, ezagutza, Dulantziko guda eta taktika militarra. Fernando Sánchez Aranaz (Erdaraz).

- 10:45-11:30 Zumalakarregi, ikurra eta izatea. Mikel Sorrauren (Erdaraz).

- 11:30-12:00 Atsedena.

- 12:00-12:45 Komunalak eta auzolana. Patxi Zabaleta.

- 12:45-13:30 Euskararen egocera XIX. mendearen lehen erdian. Juantxo Madariaga.

- 14:00-16:00 Bazkaria.

- 16:00-16:15 Bideoa: Foruen deuseztatzea. Xabier Irujo.

- 16:15-17:45 Mahai-ingurua: “Euskal populazioaren karlismoarekiko atxikimenduaren arrazoiak”.

Parte hartzaileak: Asisko Urmeneta (marrazkilaria eta

idazlea), Mikel Alberdi (Ormaiztegi Zumalakarregi Museoaren zuzendaria).

Moderatzailea: Eneko Bidegain (irakaslea Mondragon Unibertsitatean).

- 17:45-18:00 Ondorioak eta itxiera: Idoia Arrieta (Historian Doktorea).

- Izen ematea:

10 euro (bazkariarekin 30 euro). info@nabarralde.com

aihert@gmail.com

- Antolatzailea: Nafartarrak Kultur Taldea.

- Laguntzaileak: Nabarralde, Usurbilgo Udala eta Martin Ttipia.



Harria Hitz, Koldo Almandozekin

Larunbat eguerdian ibilbide gidatua eta arratsaldean, gunerik zikinduko ez duen Argazpituak tailerra “Oreina” filmaren zuzendari Koldo Almandoz zinemagile donostiarrarekin. Herriko elementu ezberdinei azpituak jartzeko tailerra.

Urriak 26, larunbata

- 12:30 Harria Hitz bisita gidatua herrigunean frontoitik abiatuta.

- 16:00-19:00 Argazpituak tailerra Koldo Almandozekin Dema plazatik.

- Izen ematea: 688 818 017 edo info@kultour.pro Plaza kopuru mugatua. Izen ematea, alde z aurretik.

- Prezioa: 5 euro.

- Informazio gehiago: harriahitz.eus

- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

- Bideratzailea: Ereiten.

Energiari buruzko jardunaldiak

Energiaren inguruko jardunaldiak antolatu ditu herritar talde batek asteotarako, hausnarketa eta eztabaidarako. Hurrengo hitzordua:

Azaroak 8, ostirala

- 18:00 Hitzaldia Potxoenean. “Usurbilgo autohornikuntza azterketa”. Hizlaria: Jesus Calvillo.

- Antolatzailea: herritar taldea.

Asier Azpirozek finalaurrekora sailkatzeko aukera du oraindik

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa final-laurdenetan murgilduta dago. Andoingo Bastero Kultur Gunean jokatu zen lehena. Eñaut Martikorena nagusitu zen eta hurrengo faserako sailkatu da zuzenean. Asier Azpiroz bosgarren izan zen Andoingo saioan. Dena den, puntu asko lortu zituenez, oraindik badu finalurrekoetara sailkatzeko esperantza.

Eñaut Martikorena hernaniarrek lortu zuen puntuazio altuena Andoingo saioan, 476. Eraitza honi esker, azaroaren 17an Arrasaten jokatu den finalurrekoan kantatuko du.

Asier Azpiroz bosgarren izan zen. Dena den, puntu asko batu zituen. Pentsa, bihar-munean Irunen jokatu zen final-laurdeneko puntuazioak Andoingoak baino bajuagoak izan ziren. Irungoa eta gero,



Asier Azpiroz bosgarren izan zen larunbateko kanporaketan. Saio horretan Inaxio Usarralde Arantzadi aritu zen aurkezle lanetan.

Asier Azpirozek bosgarren jarraitzen du oraindik sailkapen orokorrean.

Araudiaren arabera, final-laurdenetako saioetako irabazleak zuzenean pasako dira finalurrekoetara, eta horiekin batera, puntu gehien eskuratzen dituzten hamahiru bertsolariak.

Andoingo sailkapena

1. Eñaut Martikorena Lizaso 476
2. Iban Urdangarin Lardizabal 467
3. Unai Mendizabal Jauregi 460,5
4. Iñaki Apalategi Astigarraga 458,5
5. Asier Azpiroz Iztueta 458,5
6. Beñat Iguaran Amondarain 447

Informazio gehiago:

www.bertsozale.eus

KzGunerako datozen ikastaroak

Urriaren 31ra arte goizez, 9:00-13:00 artean izango da zabalik Usurbilgo KzGunea. Hemen datozen ikastaroen berri:

- Urriak 25-28, 9:00-11:00 "Instagram. Partekatu zure argazki eta bideo onenak".
- Urriak 29-31, 9:00-11:00 "Facebook zure Smartphonean".
- Azaroak 4-6, 18:00-20:00 "PC, teklatua eta sagua hasieratik nola erabili ikas ezazu".
- Azaroak 7-20, 16:00-18:00 "Oinarritzko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoa bidaltzen ikasi".

Informazio gehiago:

tutor.usurbil@kzgunea.net
943 023 684
kzgunea.eus
Kale Nagusia, 37.

Haurrentzako zine zikloa bueltan

Usurbilgo Udalak Ziortza Gazte Elkartearekin haur eta gaztetxoentzat antolatutako negu parteko euskarazko zine zikloa bueltan dator. Lehen proiektzioa, azaroaren 3an (igandea) 17:00etan Sutegin: "Asterix, edabe magikoaren sekretua". Sarrerak egunean bertan 3 eurotan eskuragarri. Martxora arte luzatuko da hileroko zikloa.



"Asterix, edabe magikoaren sekretua" filma eskainiko dute azaroaren 3an Sutegin.

Batukada feminista ikastaroan izena emateko epea ireki dute

Azaroaren 5era arteko epea dute interesdunek Ahalduntze Eskolak antolatutako ikastaroan doan izen emateko. Udal Parekidetasun Sailean, 943 377 110 telefono zenbakian edo parekidetasuna1@usurbil.eus helbidean bideratu ahalko da izena.

Ikastaro honetan Usurbilgo bizilagunek lehenetsua izango dute.

Saioak asteazken hauetan, 17:00-19:00 artean izango dira Harane futbol zelaiko Kalezar 38A lokalean: azaroaren 6an eta 20an, abenduaren 4an,



Ikastaroko saioak asteazken arratsaldean egingo dira.

urtarrilaren 15ean eta 29an, txoaren 25ean, apirilaren 22an eta otsailaren 12an eta 26an, martxoaren 25ean, apirilaren 22an eta maiatzaren 6an eta 20an.

Baztango itzuliaren 3. etapa

Urriko txangoari jarraipena emanez, Baztango Itzuliaren hirugarren etapa antolatu du Andatza M.K.K.-k azaroaren 17rako. 7:00etan abiatuko dira Oiarde Kiroldegitik autobusez.

Aldudes, Berderitz, Auza eta Izpegi lotuko dituen 14 kilometroko bidea osatuko dute. Izena azaroaren 13a baino lehen eman beharko da. Horretarako 10 euroko ordainketa egin Andatzako kontu zenbakiotako batean: 3008 0259 1630 0543 0321 (Rural Kutxa) / 2095 5069 0710 6848 9805 (Kutxabank). Plaza kopuru mugatua.

Ibilbidean zehar egingo den otordurako bazkaria norberak



Auzaren ikuspegia, Izpegitik begiratuta. Argazkia: J. K. Azkarate.

eraman beharko du. Gogoan izan, Andatza M.K.K.-ren irteeretan parte hartzeko mendiko federatua eta aseguru txartela indarrean izatea ezinbestekoa

izango da. Nahi duenari tramitazioa mendi taldetik egingo zaio. Informazio gehiagorako, andatza.com edo andatza@hotmail.com

Endika Abril errebote txapelketako finala, igandera atzeratua

Euria tarteko aurreko iganderrako iragarria zegoen 56. Endika Abril Errebote Txapelketako finala bertan behera uztea erabaki zuen Gipuzkoako Pilota Federazioak. Igande honetara, urriaren 27ra atzeratu dute azken neurketa. Eguraldiak laguntzen badu behintzat, goizeko 11:00etan ospatuko da final handia Villabonako errebote plazan. Gogoan izan, Zubieta heldu da azken txanpa honetara. Hazparneko Noizbait taldea izango du aurrez aurre.



Eguraldiaren beldur, urriaren 27ra atzeratu zuten finala.

Futbola Haranen

Urriak 26, larunbata

■ 9:30 Usurbil 5A
Urnieta 5A

■ 9:30 Usurbil 6A
Urnieta 6B

■ 10:45 Infantilak:
Udarregi Usurbil FT A
Texas

■ 12:30 Kadeteak:
Usurbil FT
Orioko A

■ 15:30 Jubenilak:
Usurbil FT
Internacional

Eskubaloia Oiardon

Urriak 26, larunbata

Eskola Kirola

■ 9:30 Alebin neskek:
Udarregi 6A
Udarregi 5A

■ 9:30 Alebin neskek:
Udarregi 6D
Urnieta 6A

■ 11:00 Infantil neskek:
Udarregi A Usurbil
Mundarro

Usurbil K.E.

■ 16:00 Kadete neskek,
Gipuzkoako Txapelketa:
Usurbil K.E.
Lana Aloña Mendi K.E.

■ 17:45 Senior neskek,
Euskadiko Txapelketa:
Urbil-Usurbil K.E.
Berango Eskubaloia

■ 19:30 Senior mutilak,
Gipuzkoako Txapelketa:
Usurbil K.E.
Donibane Eskubaloia

Urriak 27, igandea

■ 11:30 Alebin neskek,
errendimendua:
Usurbil K.E.
Pulpo E.K. A

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

Patxi
Patri MA
Jateixea
· bazkariak EGUNERO
· afariak, ostegunetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiurrenea 8
© 943 370 008

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldia, jangela, egongela, harriera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldia, egongela, komuna, kalefakzioa. Iggogailurik gabe. Dena berriua. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berriua. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berriua, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m² eta garajeak

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldia, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Usurbilgo Kale Nagusian etxea partekatuko lagun baten bila nabil. 26 urteko neska gazte bat naiz eta elkarbizitzeko pertsona zintzo eta arduratsua. Ekainetik aurrera sartzeko. Tel. 616 027 636

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsua eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten

bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informez ditugu. 675595294

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta

itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatziki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Telefonoa: 663 031 803

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrik emateko. 608201745

Txiriboga tabernan asteburutarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainkategi erretegian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakoko kudeatzailea behar da Buruntaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesio-naltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrik emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrik emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat:

gorputzaldiak@udarregi.eus

Zerbitzari eta sukaldari laguntzaileak behar dira Aratz erretegian, info@restaurantearatz.com

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Emakume Usurbildar bat naiz eta umeak zaintzen lan egingo nuke. Esperientziarekin. 616 273 785

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezu bat lasai 688637679 zenbakira, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsaldez zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta



Zorionak bikote!! Azkenean iritsi da eguna!! Urriaren 25ean zuen urtebetetze eguna da. Ondo-ondo pasa!! Besarkada eta muxu handi bat.



Zorionak Victor!! Urriaren 23an 7 urte! Muxu asko etxekoan partez.

esperientziaduna. 686 825 587.

Ordukako lan baten bila nabil arratsaldeetarako, garbiketa eta haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko prest. Erreferentziak ditut. Esperientziaduna. 688 77 41 80.

Pertsona helduen zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziak ditut. 658 45 36 76.

Emakume arduratsua, garbiketa lanak eta haur zein helduak zaintzeko prest. 617 75 15 22

Emakume bat etxeko nahiz zaintza lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna. 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00-17:00 bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Tel 602 069 147

Lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta lanegilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz,

esperientzia ere erreferentziarekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaleetan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663

443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsalde. Urtarriletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketetan.

671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. 631 856 814.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Segituan lanean hasiko nintzake. 637106649.

BESTELAKOAK

Andatzpe Elkartearen bazkide berriak sartzeko plaza libreak daude. Edozein zalantza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkartearen bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. Interesa duenak deitu: 699 421 238 Inigo.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurrikoa da eta berri berria dago. 650 027 123.

Urtea zehar ingeleseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonesezko txoritxoak salgai. 659 185 107

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943 429 682 / 637 293 471

3 metroko toldo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzailak, telebistak, patinetak, liburuak... Atalluko Garbigunean. doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Aberre-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitetgia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ilehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noa! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 24	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Ostirala 25	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Larunbata 26	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Igandea 27	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Astelehena 28	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Asteartea 29	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Asteazkena 30	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Urriak 24 - Azaroak 03

Osteguna 31	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Ostirala 01	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Larunbata 02	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Igandea 03	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda urria

25 ostirala

- "Jar ezazu Liburuzain bat zure bizitzan". Idoia Torregarairerkin. 18:30. Udal liburutegia.
- Euskal presoan eskubideen aldeko elkarretaratzea 20:00. Mikel Laboa plazan.
- Joseba Tapiaren zuzeneko diskoaren grabaketa. Bi emanaldi: 20:00/22:30. Sutegin.

26 larunbata

- Kantu-jira. 12:30ean Mikel Laboa plazan.
- Harria Hitz: Usurbil eta Euskal Kultura garaikidea Ibilbide gidatua. 12:30ean frontoian.
- Antxomolantxaren tailerrak Aginagan. 16:30-19:30 Aginagako ludotekan.

27 igandea

- Ordu aldaketa. Goizaldeko 3:00etan 2:00ak izango dira.

Joseba Tapiak zuzeneko disko bat grabatuko du Sutegin

Joseba Tapiak zuzeneko disko bat plazaratzeko asmoa du. Ostiral honetan bitan arituko da Sutegin eta bi saioak erregistratuko ditu. Bederatzi musikarirekin batera igoko da oholta gainera: Jon Celestino (tronpeta), Ibon Irixoa (saxoa), Asier Ituarte (tronboia), koroetan Leire Berasaluze, Kristina Aranzabal eta Nerea Erbiti, Jexux Aranburu "Txus" (teklatuak), Iñigo Telletxea (baxu elektrikoa) eta Iker Uriarte (jazpana).

Emanaldi berezi honen baitan bi saio iragarri ditu, 20:00etan lehen kontzertua, 22:30etan bigarrena, kultur etxeko auditorioan. Sarrerak aurrez eskuratu



Ostiral honetan bi saio eskainiko ditu. 20:00etan lehen; 22:30ean bigarrena.

ahalko dituzue 10 eurotan Bordatxon, Txirristran, Lizardin eta NOAUA! K.E.-ren egoitzan. Edo egun berean 13 eurotan Sutegin bertan.

Gaztetxoentzako tailerrak Aginagan

Ekoplastilina, artilea eta kandelak lantzeko 5 urtetik gorako haur eta gaztetxoentzako doako tailerrak antolatatu ditu Antxomolantxa kultur elkarteak, urriaren 26an, 16:30-19:30 artean Aginagako ludotekan.

Larunbat honetan, kantu-jira berri bat

Euskal kantutegiari kalejiran ahotsa jartzeko hitzordua bueltan da berriro. Larunbat honetan eguerdiko 12:30ean abiatuko dira Mikel Laboa plazatik. Ez ahaztu kantu-liburuxka eramatea, kantatzeko lagungarri izango zaizue.

Datozenak

Euskaraldia prestatzeko bilera

Euskaraldia prestatzen segitzeko bilera irekia deitu dute azaroaren 12rako. 15 eguneko iraupena izango du Euskaraldiaren bigarren edizioa entitateetara ere zabaldu nahi da eta Euskaraldiaren ariketa kolektiboa izatea sustatzeko "ariguneak" sustatuko dira.

Azaroaren 12ko bilera Potxoenean egingo da, arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Informazio gehiago:

<http://usurbil.euskaraldia.eus>

Azaroaren 16an, Euskal Herriko lehen trikitixa topaketa

Estreinakoz antolatu eta Euskal Herriko trikitilarien bilgune izango den hitzordua azaroaren 16rako iragarri da, larunbatarekin. 12:00etan trikitipotea deitu dute Mikel Laboa plazatik abiatuta, eta 14:00etan bazkaria Andatzpe elkartearen. 16 urtetik gorakoei zuzenduriko jaialdi honetako bazkarian izen emateko azken eguna, azaroaren 10a. Izena emateko, helbide honetara idatzi behar da: trikitixabazkaria@gmail.com Prezioa, 25 euro.

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA **943 36 10 79**

Otar-Goxo
Elkagaiak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL
943 36 11 82



Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 76 / 76
943 36 72 64
urdaintzi.euzka.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK
· BERRITZE LANAK

Josue
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60
Ataldu pol. ataldu. 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Telefonia
693 059392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Borda Berri Kalea, 2 3º A
20170 Usurbil. Apartado Correos, Nº 26

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

· gremioen koordinaketa
· berritze lanak
· sukaldeak
· komunak

943 530 337
607 119 313

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L.

· FATXADAK ETA TEILATUAK
· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK
· URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA



PLAKODUR

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



Antonio URRUZOLA
ARROZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415
Astesvain Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Iñaki
ARROZTEGIA

943 362 664
Barren Etxe kalea ZUBIETA

J. R. IBARGOEN S.L.
USURBIL

ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoen.arozzgi.net jr.ibargoen@arozzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



ARGILAN

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



antenas Telemar

943 55 33 99
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntapax, 3 - 3.B. 20170 USURBIL



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMAILA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
Tfnoa.: 600 024 825

Zuri Arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 · 943 651 465
zuriarraiturgintza@gmail.com

Rafa
iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO HANPARAK
· KONFIGURAZIO OREMIKAK · KOMUNEKO ALTZARIARIK

Bordaberri kalea 1, 1 behea · 943 36 80 04



ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



maiz
hornigaiak

· TRESNERIA ETA ERREMINTAK
· EGUR ETA AROZT-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39



*Santu guztien egunean,
aukera zabala!*



URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55